

altza

Elkarkidetza aldarrikatuz

Piñata igandea dela eta, Donostiako Inauteri Txapelketa ofizialean parte hartutako konpartsa gehienak izango ditugu asteburuan kalez-kale desfilatu eta dantzatzen Altza eta Trintxerpen. Urteroko ohiatura dugu hau. Inauteriak bukatu eta ondorengo asteburuan Altzara etortzea ohizkoa bilakatu zaie Donostiako konpartsa ospetsuenei.



Hamargarren urtez antolatu dute Altzako hiru emakume elkarteek Emakumearen Astea kultur etxearen laguntzaz.

Matrikulazio kanpaina hasi da jadanik Altzako ikastetxeetan. Martxoaren 14a bitartean, auzoko gurasoek, ikastetxe bakoitzak dituen hizkuntz ereduak, garraioak, ikastorduez kanpoko eskaintzak, e.a. aztertu beharko dituzte beren seme-alabek leziketa oso bat jaso dezaten.

aurreko urteetan bezala, Elkarte Berri, Ostadar eta Uztai Belar emakume elkarteek, Casares Kultur Etxearekin batera, martxoaren 6etik 10era bitartean Emakumearen Astea antolatu dute «Emakumea eta Elkarkidetza» izenburupean.

Martxoaren 6an, Cristina Almeida abokatu eta

politikoa zegoen iragarria baina gure artean ez duela egoterik izango adierazi du azken orduan eta lila-ren 14ean izango dugu gure artean.

Egun berean, Altzako emakumeen elkartearen historiari buruzko erakusketa hasiko da Casares Kultur Etxean 16.00etan. Astelehenetik ostegunera egongo

da irekita arratsaldeko 17.30etatik 20.00etara.

Martxoaren 7an, asteartearen, arratsaldeko 16.00etan «Ausartak» taldeak «Casa Pura» lana taularatuko du San Jose de Calasanz ikastetxean.

Martxoaren 8an, «Emakumea eta elkarkidetza»z mahai ingurua izango da Casaresen, arratsaldeko 15.30etan. Duela hamar urte emakumeen arteko elkarkidetzan oinarritu zuten emakume taldeek lana; denbora aurrera joan ahala, mugak zabaldu egin dituzte beste elkarteekiko. Mahai inguru honetan parte hartuko duten emakume guztiak, elkarte ezberdinetako altzatarrak izango dira (gartzelako emakume arduraduna, 0'7 batzordeko kide bat, atzerriko herriei laguntzeko elkartetako kideak...).

LARRAITZ GARMENDIA (TFNOA.: 391267)

Jose Luis
JAUREGI

Harategia-Urdaitegia
Txirrita Bertsolaria, 66 ALTZA - Tfnoa.: 39 18 99



ILEAPAINDEGIA

Larratxo, 94
Tfnoa.: 35 71 66

Etxe-eder
Herrera pasealekua, 20

Tfnoa.: 40 07 62

EDERKI - Tapiztegia



Gure auzoan bertan



GOZO ETA
BONBOI DENDA

Bertan eginak • Etxez-etxeko banaketa
Txirrita bertsolaria, 3 • Tfnoa.: 391605 ALTZA



LORADENDA

Lorea

Arrizar 14, - Tfnoa.: 35 79 39

HIPER LARRATXO

Opariak • Barruko Arropa
Tresneriak Jostailuak • Bisuteria

Bertsolari Txirrita 10 • 40 05 95